

GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIO-TXOSTENETIK SALBUESTEKO
JUSTIFIKAZIO-TXOSTENA

XEDAPENAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

1.- Adierazi xedapenaren izena:

Foru Dekretu Arauemailearen proiektua, balio erantsiaren gaineko zergaren neurri osagarriari, COVID-19ak eragin duen osasun-larrialdiaren ondoriozkoei, buruzkoa.

2.- Adierazi Saila, Zuzendaritza eta Zerbitzua:

Ogasun eta Finantza Saila
Idazkaritza Nagusi Teknikoa
Zerga Politikako Zerbitzua

3.- Azaldu xedapenaren helburu orokorrak:

Euskal Autonomia Erkidegoarekin sinaturik dagoen Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsiak, 26. artikuluan ezartzen du Balio Erantsiaren gaineko Zerga itundutako tributu bat dela, eta Estatuak unean-unean ezartzen dituen arau substantibo eta formal berberen arabera arautuko dela.

Osasunaren Mundu Erakundeak martxoaren 11n COVID-19ak nazioartean eragin duen pandemia deklaratu ondoren, premiazko neurriak hartu dira aurrekaririk gabeko krisi horren eragina arintze aldera.

Duela gutxi, ekonomia eta enplegua babesteko premiazko neurri osagarriari buruzko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretua onetsi da Lurralde Erkidearen eremuan, aurretik hartutako neurriak indartu, osatu eta zabaltzeko beste neurri-sorta bat abiarazteko helburuarekin. Horrela, laguntza eman nahi zaio ekoizpen- eta gizarte-sareari, eta, era berean, erraztu egin nahi da jarduera ekonomikoa suspertzea osasun publikoaren alorreko larrialdi-egoera hori arintzen hasten denean.



Horri dagokionez, errege lege-dekretu horretan jasotzen diren neurri fiskalak honako hauek dira:

Lehenik eta behin, eta osasun-materialaren hornidura azkar eta eraginkortasunez gauzatu ahal izateko, 2020ko uztailaren 31ra arte, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko zero zerga-tasa ezarri da, erakunde publikoak, irabazi-asmorik gabekoak eta ospitaleak diren mota horretako ondasunen erkidego barruko entregei, inportazioei eta erosketei aplikatze aldera.

Bigarrenik, aldaketak egin dira 2020ko zergaldian deklaraturako alarma-egoeraren ondorioz Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erraztuaren hiruhilekoko kuotaren ordainketa zatikatuen kalkuluan.

Hirugarrenik, kontuan hartuta konfinamenduaren ondorioz herritarren kultura- eta informazio-produktuen eskaria handitu egin dela, liburu, egunkari eta aldizkari digitaletarako sarbidea errazteko asmoz, liburu, egunkari eta aldizkari digitalei aplikatu beharreko zerga-tasa ehuneko 4ra murriztu da, eta, horrela, liburu fisikoaren eta liburu elektronikoaren artean zerga-tasen arloan dagoen diskriminazioa ezabatu da.

Eta, azkenik, ETEen eta autonomoen araubidea malgutzeko helburuarekin, ezabatu egiten da hiru urtez araubide berezi erraztuari eta balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide bereziari uko egiteko ezartzen den nahitaezko lotura, eta 2021eko ekitaldian berriro aplikatu ahal izango dira araubide horiek, baldin eta aipatu araubideok aplikatzeko arau-baldintzak betetzen badituzte.

Horrenbestez, Ekonomia Itunaren 26. artikuluan xedaturik dagoena betetzeko, beharrezkoa da, Foru Dekretu Arauemaile honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoaren araudian arestion adierazi diren zerga-arloko aldaketak sartzea.



GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOTIK SALBUESTEKO JUSTIFIKAZIOA

4.- Adierazi zergatik jotzen den xedapena genero-eraginaren ebaluaziotik salbuetsita dagoela:

Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretuak, azaroaren 19koak, genero-eraginaren alde aurreko ebaluazioa egiteko jarraibideak finkatzen dituenak (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusia), 2. artikulua a) letran zehazten du zein xedapenek izan behar duten Generoaren arabera Eraginaren Aurretiazko Ebaluazio Txostena.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak 25. artikulua 3. atalean arautzen ditu generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostenarekin batera aurkeztu beharko diren xedapenak eta egintzak.

Arestian aipatuta den Foru Dekretuaren 2.a) artikulua 2. azpiatalak eta 4/2018 Foru Arauaren 25. artikulua 3. atalaren b) letrak beren-beregi jasotzen dute generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioaren txostenarekin batera aurkeztu beharko direla Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 8. artikulua 2. atalean adierazten diren araugintzako foru dekretuak; hau da, presazko arrazoiengatik emandakoak eta Arauak ezartzea edo egokitzea komeni denean.

Hala ere, ez dira aipatzen 8. artikulua horren 1. paragrafoan aipatutakoak; hau da, ez dira aipatzen Bizkaiko Lurralde Historikoaren legeria egokitzea helburu duten horiek, Ekonomia Itunean xedaturik dagoenaren arabera, arestion aipatu den lurralde historiko horretan araubide erkideko lurraldean dauden arau substantibo eta formal berberak izan behar dituztenean, aztergai dugun Foru Dekretu Arauemailearekin gertatzen den bezalaxe.



Atal honetako foru dekretu arauemaileak ez daude berariaz jasota ez azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan, ez ekainaren 20ko 4/2018 Arauan, eta horrek esan nahi du haien aplikazio-eremutik kanpo daudela.

Horren guztiaren ondorioz, ez da bidezkoa Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezietan COVID-19ari aurre egiteko premiazko neurriak hartzen dituen Foru Dekretu Arauemailearen proiektua generoari dagokionez duen eragina ebaluatzea, azterlan honetatik salbuetsirik dagoelako.



INFORME JUSTIFICATIVO DE LA EXENCIÓN DEL INFORME DE EVALUACIÓN DE IMPACTO EN CUANTO AL GÉNERO

DESCRIPCIÓN GENERAL DE LA DISPOSICIÓN

1.- Indicar la denominación de la disposición:

Proyecto de Decreto Foral Normativo de medidas complementarias en el Impuesto sobre el Valor Añadido derivadas de la emergencia sanitaria COVID-19.

2.- Indicar el Departamento, Dirección y el Servicio:

Departamento de Hacienda y Finanzas
Secretaría General Técnica
Servicio de Política Fiscal

3.- Exponer los objetivos generales de la disposición:

El Concierto Económico con la Comunidad Autónoma Vasca, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, establece en su artículo 26 que el Impuesto sobre el Valor Añadido es un tributo concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado.

Tras la declaración por la Organización Mundial de la Salud de la pandemia internacional provocada por la COVID-19, el pasado 11 de marzo, se han adoptado medidas urgentes con el objetivo de amortiguar el impacto de esta crisis sin precedentes.

Recientemente, se ha aprobado en el ámbito de Territorio Común el Real Decreto-Ley 15/2020, de 21 de abril, de medidas urgentes complementarias para apoyar la economía y el empleo, con el objetivo de incorporar un nuevo paquete de medidas que refuerce, complemente y amplíe las adoptadas anteriormente. De este modo, se pretende dar soporte al tejido productivo y social, y a su vez, facilitar que la actividad



económica se recupere en cuanto empiece a remitir esta situación de emergencia de salud pública.

A este respecto, las medidas fiscales contenidas en el citado Real Decreto-ley son las siguientes:

En primer lugar, y para permitir que el suministro de material sanitario se realice de forma rápida y efectiva, se establece hasta el 31 de julio de 2020, un tipo impositivo del Impuesto sobre el Valor Añadido del cero por ciento aplicable a las entregas interiores, importaciones y adquisiciones intracomunitarias de este tipo de bienes cuyos destinatarios sean entidades públicas, sin ánimo de lucro y centros hospitalarios.

En segundo lugar, se introducen cambios en el cálculo de los pagos fraccionados de la cuota trimestral del régimen simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido como consecuencia del estado de alarma declarado en el período impositivo 2020.

En tercer lugar, teniendo en cuenta que el confinamiento ha hecho incrementar la demanda de productos culturales y de información de la ciudadanía, para facilitar el acceso a los libros, periódicos y revistas digitales, se reduce al 4 por ciento el tipo impositivo aplicable a los libros, periódicos y revistas digitales eliminando así, la discriminación existente en materia de tipos impositivos entre el libro físico y el libro electrónico.

Y finalmente, con el objeto de flexibilizar el régimen de pymes y autónomos, se elimina la vinculación obligatoria que durante tres años se establece para la renuncia al régimen especial simplificado y al régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca del Impuesto sobre el Valor Añadido, pudiendo volver a aplicar dichos regímenes en el ejercicio 2021, siempre que cumplan los requisitos normativos para su aplicación.

Así pues, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 26 del Concierto Económico se hace necesario, mediante el presente Decreto Foral Normativo, introducir en la



normativa del Territorio Histórico de Bizkaia las modificaciones aludidas en el ámbito tributario.

JUSTIFICACIÓN DE LA EXENCIÓN DE EVALUACIÓN DE IMPACTO EN CUANTO AL GÉNERO

4.- Indicar los motivos por los que se considera que la disposición está exenta de evaluación de impacto de género:

El Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, determina, en la letra a) del artículo 2, las disposiciones que deben ir acompañadas de un Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.

A su vez, la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres regula en el apartado 3 del artículo 25 las disposiciones y actos que deberán ir acompañadas de Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.

Tanto el subapartado 2 del artículo 2.a) del citado Decreto Foral como la letra b) del apartado 3 del artículo 25 de la Norma Foral 4/2018, contemplan expresamente que deberán ir acompañados de Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género los Decretos Forales Normativos del apartado 2 del artículo 8 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia; esto es, los dictados por razones de urgencia y siempre que convenga establecer o adaptar normas tributarias.

Sin embargo, no se hace alusión a los mencionados en el apartado 1 de dicho artículo 8; es decir, aquéllos cuyo objeto sea exclusivamente la adaptación de la legislación del Territorio Histórico de Bizkaia, cuando, de conformidad con lo dispuesto en el



Concierto Económico deban regir en dicho Territorio Histórico las mismas normas sustantivas y formales que en el territorio de régimen común, tal y como sucede con el Decreto Foral Normativo que nos ocupa.

El hecho de que los Decretos Forales Normativos de este apartado no estén contemplados expresamente ni en el Decreto Foral 141/2013, de 19 de noviembre, ni en la Norma 4/2018, de 20 de junio, supone que se encuentran fuera de su ámbito de aplicación.

En conclusión, no procede la evaluación de Impacto en cuanto al Género, del proyecto de Decreto Foral Normativo por el que se adoptan medidas urgentes en el Impuesto sobre el Valor Añadido y los Impuestos Especiales para hacer frente al COVID-19 por estar exceptuado de este análisis.